



Lehen Hezkuntza
1. ZIKLOA

AMARA BERRI

SISTEMA

GLOBALIZAZIO SISTEMA IREKI BATEN BARRUKO BIZI BILAKABIDE GISA
LA GLOBALIZACIÓN COMO PROCESO VITAL DENTRO DE UN SISTEMA ABIERTO

Dokumentu honen bidez eskolako ezaugarri nagusiak jakitera eman nahi ditugu, honetarako oinarrizko bi dokumentu aipatuko ditugu: **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP)** eta **Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP)**.

IHPa gure oinarrizko dokumentua da eta bertan gure hezkuntza asmoa, lortu nahi duguna, jasota dago.

Guk dugun ikaslearen kontzepzioa da gure **IHParen** ardatza:

- Ikasle bakoitza izaki globala da, beraz bere garapenaren esparru guztiak interesatzen zaizkigu: nortasuna, harreman sozialak eta arloekin lotutako ikasketak. **GURE XEDEA UMEAREN GARAPEN ARMONIKO ETA GLOBALA DA**. Beraz, eskolako helburu orokorrak biziki lotuta daude garapen hiru esparru hauekin.
- Izaki bakoitza norberaren kontzeptu eskema eta emozio-egoeratik abiatzen da eta bere ahalmena du.
- Badago berezitasun bat haur guztiak batzen dituen: jolaserako interesa. Jolasaren bidez helduen mundua imitatzen dute eta imitazioz ikasten dute.

Printzipio metodologikoak ikaslearen kontzeptzioarekin guztiz lotuta daude eta hauek gure eguneroko eginbeharra bideratzen dute:

- **INDIBIDUALIZAZIOA**: eskolak, ikasle bakoitzak dituen ahalmena eta egoera kontuan harturik, bere mailan eta erritmoan lan egiteko aukera emango dion programa ahalbideratu behar du.
- **SOZIALIZAZIOA**: elkarreraginak aurrera jotzen eta gure eskemak aldatzen laguntzen digu; honengatik, guk proposatzen ditugun aktibitate guztiak testuinguru sozialak dira.
- **AKTIBITATEA**: gure helburua ikasle gogotsuak, aurrea hartzen dutenak eta jakin-mina dutenak lortzea da. "Ikasleak bere kasa egin dezakeena, ez dezala irakasleak egin".
- **SORMENA**: gizaki orok duen gaitasuna da. Eredu guztietan sustatzen dugu, pertsona bakoitzak barruan daramana kanporatu eta bere berezitasunaz jabetzeko aukera izan dezan.
- **ASKATASUNA**: besteen eskubidea errespetatuz, bakoitzak pentsatzeko, adierazteko, eta aukeratzeko duen eskubidea da. Muga bakarra besteen eskubidea da, honi "muga soziala" deitzen diogu.
- **NORMALIZAZIOA**: haur bakoitzak inguruan duen espazioa eta bizitzen ari den egoeraz jabetzen joateari deitzen diogu normalizazio prozesua. Egoera berri eta aldakorren aurrean bere buruarekiko konfidantza sustatu nahi dugu erantzuna ahalik eta baikorrena izan dadin.
- **GLOBALIZAZIOA**: bizitza globala da. Haurrari bizitzeko aukera ematen dion eskola nahi dugu. Eta bizi delako, ikasten du.

Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP) dokumentuaren bitartez aurreko ideiak eguneroko praktikan gauzatzen dira. Ikasleari buruz dugun ikuskerak, dena antolatzeko, programatzeko, esku hartzeko eta jarraipena egiteko era zehatz batera eramaten gaitu. Ondoren datozen metodologia ezaugarriek, ikuskera eta hezkuntza-praktikaren arteko koherentzia adierazten dute.

- **Antolamoldea**, bera, esku-harmenerako oinarritzko estrategia da.
- Osagarri eta egonkorak diren testuinguru sozialen bidez programatzen dugu, hau da, arloak elkar batzen diren bizi ekintzen bidez. Aktibitate hauei **Testuinguru Sozial, Egonkor eta Osagarriak** deitzen diegu. Sozialak, umeen arteko harremanak sustatzen dituztelako; egonkorak, ziklo osoan mantentzen direlako; osagarriak, aktibitateen baturak curriculum osatzen duelako.
- Aktibitate guztiek beraien baitan edo ematen zaien irteeretan **zertarakoa** edo **helburua** dute. Lanak irteera desberdinak izan ditzake: bai gela barruan besteen aurrean aurkeztu edota eskolako hedabideak erabili eskola irrati/telebista edo eskolako prentsa. Baliabide hauen bitartez ikasleek Informazio eta Komunikaziorako Teknologia Berrietan jarduten dute, testu prozesadoreak, Internet, eskanerra, argazki kamera digitala, bideo kamera, bideoen edizioa...
- **Ziklo programen** bitartez egiten dugu lana. Taldeetan adin desberdineko ikasleak nahasten dira.
- **Irakasle desberdinek** lan egiten dute ikasle talde bakoitzarekin.
- Aktibitate bakoitzak bere **lan metodo** idatzia du. Ikasleek lana burutu ahal izateko, lan metodoan adierazten diren urratsak jarraitu behar dituzte.
- **Mediateka** edo baliabide gunea lanak burutzeko oinarritzko informazio-erorbidea da.
- **Kritika eraikitzailea** aurreratzeko baliabidetzat hartzen dugu.
- **Aniztasunaren** aldekoak gara. Daukagun programari ikasle bakoitzak bere erritmo eta mailaren arabera heldu diezaioke. Ikasketa prozesua ez da adinarengatik geldiarazten.
- **Ezberdintasuna** aberasgarria da eta ez diskriminatzeko arrazoia. Denok gara ezberdinak.

Ikastetxeak badu Arreta Bereziako Zerbitzua. Hau hezkuntza prozesuan zehar edo une jakin batean hezkuntza premia bereziak (edonolako zailtasunak, gaitasun urriak edo apartak...) dituzten ikasleen beharrei erantzuna ematen saiatzen da.

1. zikloko beste zenbait ezaugarri:

- Irakurketa eta idazketa lehen hizkuntzan egiten da.
- Bigarren hizkuntza, ahoz lantzen da.
- Irrati emanaldiak eskola barnean ematen dira. Emanaldi hauek, ziklo honetako ikasleek soilik burutu eta entzuten dituzte.
- Ingurune natural eta sozialaren ezaguera arloa gela espezifikokan lantzen da. Baita ere hizkuntza arloan eta irratiaren bidez.

AUZOA

Departamentuko honetako antolamendua etxean, dendan, tailerrean eta bulegoan oinarrituta dago. Hauen artean sortzen diren hartu-emanak eta salerosketak bertako jarduera markatzen dute: jostungelakoek beraien lana burutzeko artilea erosi behar dute, etxekoek janaria prestatzeko produktuak erosten dituzte, dendakoek produktuak saltzeko hainbat neurri erabiltzen dute.



- **Etxea**

Testuinguru honetan haurrak jolasten ari diren bitartean, beraien barne mundua eta afektibitatea adierazten dute, rol ezberdinak hartu eta harremanak sendotzen dituzten bitartean. Denen artean elkarkidetzaren bideak jorratzen dituzte. Produktuen eskaera egin ondoren, dendan egiten dute erosketak. Erositako produktuak erabiliz janaria prestatzen dute.

- **Jostungela**


Telarra edo ponpoia egiten dute. Honetarako artile eskaera egiten dute, eskaera honen salneurria eta itzuliko dizkieten kanbioak kalkulatu. Eskaera honen bidez, era bizi batean, eragiketa arruntenak (batuketa eta kenketa), zenbakien deskonposaketa eta luzera neurriak erabiltzen dituzte.

- **Bulegoa**

Joko matematikoen ikuspuntutik abiatuz eta eguneroko bizitza arruntean eman daitezkeen egoerak erabiliz, aktibitate ezberdinak burutzen dira. Honela, buruketen ebazpena eta bakarkako jokoak, bai mahaikoak bai ordenagailukoak, egingo dituzte matematika trebetasunak garatu ahal izateko.

- **Denda**

Dendan, manipulazioaren bidez eta saiakuntzak eginez, kontzeptu ezberdinak bereganatzen dituzte: neurriak (luzera, masa, bolumena, moneta) eta zenbaketa (zenbakien deskonposaketa, serieak, zenbakiak ordenan jarri, oinarritzko eragiketak...). Berton lau gune daude:



1. **Mertzeria:** hemen artilea saltzen da. Bezerorik ez dagoenean, luzera neurriekin zerikusia duten ariketak egiten dituzte.
2. **Kutxa:** diru kontaketa egiten dute eta moneta-unitatea erabiltzen dute.
3. **Elikagaiak:** etxetik datozen bezeroei produktuak saldu eta masa unitatearekin (gramo-kilo) ariketak burutzen dituzte.
4. **Isurkiak:** bezeroei saldu ondoren, bolumen neurriekin saiakerak egiten dituzte ontzi ezberdinak erabiliz.

PRENTSA

Departamentu hau lau testuinguruk osatzen dute: Gaileta lantegiak, Denbora-pasa geometrikoak, Zenbaki- nahaskik eta Problemak. Bertan egindako lanak denbora-pasa aldizkarian jasotzen dira.



- **Gaileta lantegia**

Bloke logikoak erabiliz eta berezitasunak eta ezaugarriak kontutan hartuz, elementuak multzokatzen dituzte. Elementu bakoitzaren balioa kontutan hartzen da multzoaren balioa kalkulatzeko. Testuinguru honetan, irudi geometrikoekin egiten dituzten multzoak gaileta paketeak balira bezala saltzen dituzte dendan.

- **Denbora-pasa geometrikoak**

Joko ezberdinen bidez, inguru hurbileko irudi eta elementu geometrikoak identifikatzen dituzte, baita espazioan orientazioa eta kokapena ere. Hemen neurtzeko tresnak (erregela) ezagutzen eta erabiltzen hasten dira.

- **Zenbaki-nahaski**

Zenbakia eta zenbakien arteko harremanak lantzen dira: zenbaketa, serieak, sailkapenak (aurreko-ondorengoa, handiagoa/txikiagoa/berdina, bakoitia/bikoitia, batuketa eta kenketa burukoekin, biderketa, batugai berdinen batuketa eta zatiketa, banaketa prozesu bezala).

Buruko kalkulurako estrategietan hastapena ere lantzen da.

- **Problemak**

Beraien inguruko egoeretatik abiatuz problemak ebatziko dituzte, hizkuntza ezberdinak, idatzia, ahozkoa eta grafikoa erabiliz. Ekintza honekin, datuen antolaketa, estrategia eta eragiketa ezberdinen erabilera eta emaitzaren balioztatzeari hurbilketa egingo zaie.

HITZALDIA-IRRATIA

Departamentu honen oinarritzko helburua ulermena eta adierazpena ahoz zein idatziz garatzea da.

IRRATIA

- **Kontu kontari**

Helburua idatzizko adierazpena garatzea da. Ipuinak asmatzen dituzte.

- **Bitxikeriak**

Testua irakurri eta gero ideien galderak bilatu eta idazten dira bakoitzari bere erantzuna gehituz.

- **Albisteak**

Zuzenean bizitako edo iturri informazio ezberdinetatik, (egunkaria, telebista, pertsonak, eskola-prentsa), jasotakoaz idazten dira.

Aukeratutako albiste bat idazten dute beraien hitzak erabiliz. Albistea idazterakoan kontutan izan behar dute: zer, nork, noiz, non.... Testuaren ondoan, dagokion argazki edo marrazki bat jartzen dute.

- **Saio bereziak**

Olerkiak, abestiak, ahokorapiloak, txisteak eta asmakizunak.

Lehenengo irakurri, ondoren literalki kopiatu eta azkenik berriro irakurri egin behar dituzte. Honekin irakurketaren adierazkortasuna, memorizazioa, grafia eta ortografia lantzen dira.

HITZALDIA

- **Hitzaldiak**

Kontestu honetan, klase aurrean aurkeztu behar duten hitzaldia prestatzen dute. Jarduera honetan irakur - ulermena, hiztegiaren aberastasuna, buruz ikasteko gaitasuna, hiztegiaren erabilpena eta ortografiari dagozkion hainbat arau lantzen dira (letra larria, galdera ikurrak eta puntua batez ere).

- **Ipuin sormena**

Gune honetan, narrazioaren egitura kontuan hartuz (hasiera, korapiloa, amaiera) ipuinak sortzen dituzte, sormena garatzea eta idazketa lantzea dela helburu.

- **Ipuin laburpena**

Hemen idatzizko ulermena eta adierazpena lantzen dira, baita hiztegiaren erabilera ere. Ipuin osoa irakurri ondoren, bere hitzetan idatzi behar dute. Azkenik dagokion marrazkia egingo dute portada gisa.



- **Posta trukea**

Gune honetako helburua gutunen bidez komunikatzea da. Horretarako, gutunaren formatua ikasten dute eta honekin zerikusirik duen hiztegi egokia (igorlea, hartzailea...).

ZIENTZIAK

Departamentu honetan kontestu hauek lantzen dira: animaliak, landareak, desberdinak gara, denbora gunea eta esperimentuak.

- **Animaliak eta landareak**

Kontestu honetan animalien eta landareen aniztasuna eta beraien behaketa egiten dute sailkapenak eginez, bakoitzaren ezaugarriak bereiztuz...



- **Desberdinak gara**

Hemen norberaren ezagupena, garapen pertsonala eta osasunari onura eta kalte egiten dioten ohitura eta jarduerak, kulturak, pertsonak eta gizarte-antolakuntza lantzen dira.



- **Denbora gunea**

Eguraldiaren azterketa egiten da eta grafikoaren erabilaren hastapena lantzen da. Eguneroko bizitzarekin lotutako neurri ezberdinak ere lantzen dira eta objektuen erabilera eta euren funtzionamendua.

- **Esperimentuak**

Esperimentu ezberdinak egiten dituzte. Eguneroko bizitzan, gure inguruko gauzek aplikazio ugari dituztela ikasten dute. Hori dela eta, esperimentuak gauzatzen dituzte, material ezberdinak ezagutzen eta manipulatzeko dituzte, zergatia eta ondorioak ulertzen saiatuz, beti ere beraien mailara egokituz.



TXOTXONGILOA

Departamentu honetan nagusiki ahozko hizkuntza lantzen da, plastika arloa bitartekoa delarik.

- **Margotegia.** Teknika desberdinak erabiliz marrazkiak sortzen dituzte eta hauen inguruan istorioak asmatu. Egindako bat aukeratu ondoren, irakasleari ahoz kontatuko diote. Beharrezko zuzenketak egin ondoren, besteei aurkeztuko diete, hauek eskeinitakoa balora dezaten.
- **Panpindegia.** Ekintza hau burutzeko prestatuak dauden istorioen artean bat aukeratzen dute. Ondoren, taldean entzun eta pertsonai banaketa egiten dute. Banaketa hau elkarren artean adostua eta orekatua izan dadin saiatzen gara. Bakoitzak dagokion pertsonaiaren panpina egiten du.
- **Txotxongiloa.** Kontestu honetan aukeratutako istorioaren gidoia buruz ikasten dute. Istorio hauek ez dute amaiera zehatzik haurrek zati hori sor dezaten. Eskena tokian entsaiatuko dute panpinarekin eta behin gidoia ikasita besteen aurrean aurkeztuko dute, hauek lana balora dezaten.
- **Collage.** Kontestu honetan, batez ere, kreatibitatea lantzen da.



GORPUTZ HEZKUNTZA

Departamentu honetan garatu nahi ditugun helburuak hauek dira:

- jolas kooperatiboa eta jokoen arauen ezaguera eta talde ekintzen bidez JOLASAREN HASTAPENA BULTZATU.
- AUTOESTIMA ETA NORBERE EZAGUERA SENDOTU, oinarrizko trebetasunen praktikaren bidez (korrikaldiak, jauziak, jaurtiketa, jasotzea...) material ezberdinak erabiliz.
- ELKARKIDETZA OHITURAK SORTU, norberaren eta besteen ekintzetan indartze positiboa erabiliz.

- Egoera eta espazio ezberdinetan, OREKA ETA KOORDINAKETA OROKORRA LANDU.
- GORPUTZ MUGIMENDUA ERRITMO EZBERDINETARA MOLDATU.

Helburu hauek guztiak aurrera eramateko ekintza multzo handi bat eskainiko diogu gure ikasleriari, guztien edo gehienen gustuak betetzen saiatuz. Kontestu hauetan guztietan, jolasa edo jokoa izango da oinarrizko metodologia.

JOLASAK. Koordinaketa orokorra (lasterketa, norabide aldaketa, geldiketak...) garatu eta jokoen arauak ezagutu eta errespetatzea dira beren helburuak. Multzo honetan ezagutzen ditugun jolas mota guztiak sartzen ditugu: tradizionalak, herrikoiak, etab. Material ezberdinak erabiliko ditugu jolasak egiteko: baloiak, pikak, uztaiak, sokak...

OINARRIZKO TREBETASUNAK. Kontestu honek bizkortasuna lantzea, gorputza menderatu eta ezagutzea (desplazamendu ezberdinak, igoerak, narrasketak, katanarrean ibili, biraketak...) ditu helburu. Ekintza hau gimnasioan burutzen dugu, eta koltxonetak, suediar bankuak... erabiltzen ditugu.

BALOI JOLASAK . Multzo honen helburu nagusia oinarrizko trebetasunak eta abileziak garatzea da (eramateak, paseak, jasotzeak, jaurtiketak...). Baloi eta pilota ezberdinak erabiliko dituzte aurrerago praktikatu dituzten kirol anitzak ezagutu ahal izateko.



INGELESA

Ziklo hau programatzerakoan, ziklo honetako ikasleen gaitasun eta ezaugarriak abiapuntutik hartu eta, metodologia aktiboren bidez, egoera natural eta egokiak sortzen ditugu, haurrak espontaneoki komunikatu ahal izateko.



Lehenengo kontaktu hauetan, komunikazioari ematen diogu garrantzia. Asko hitz egiten diegu ingelesez, hizkuntza gero eta ezagunagoa izateko eta, horrela, ziurtasuna hartzen duten neurrian, ikasten dutena erraztasun handiagoz kanporatu ahal izango dute.

Saioa egoera kolektiboan hasten da. Saio honetan egiturak aurkeztu eta landu egiten ditugu eta baita eguneroko hizkuntza ere.



Science arloa, hau da Natur Zientziak eta Gizarte Zientzia, ingelesez, garatzen ari garen Hizkuntza Proiektuaren barruan egongo litzateke.

Helburua bezala, ikasleen ingeles maila eta gaitasuna igotzea izando litzateke. Horretarako erabiliko dugun metodologia CLIL metodologia da. Hau da, hizkuntza eta edukiak uztartzen dituen metodologia. Hori dela eta, aurten 1. zikloan ematen diren ingeleseko saioez gain (2 saio) beste saio bat emango dugu, saio honetan, hain zuzen ere, Science jorratuko dugularik. Ikasturte honetan 1. Zikloan Gizarte arloarekin hasiko gara , lehenengo gaia **School/ Eskola** izanik.

MUSIKA

Hauek dira lortu nahi diren helburuak:

- Kantatzeko eta dantzatzeko ezagupenetara hurbiltzea eta parte hartzea.
- Musika ekoizpenetan oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiltzea (musika lenguaia).
- Tresnak, ahotsa eta gorputza probatuz, adierazteko eta komunikatzeko erabiltzea.
- Gure kultura musikala ezagutzea.
- Musika-ekoizpen errazak taldean egitea.
- Soinu elementuak erabiliz, sentimenduak adierazteko askatasunez erabiltzea.

Helburu honek lortzeko edukiak:

- Gorputz adierazpena:
 - o Dantza libre.
 - o Munduko dantzak.
 - o Koreografiak.
 - o Dramatizazioa.
 - o Gorputz perkusioa.
- Ahotsa eta lenguaia:
 - o Kantutegia.
 - o Lenguaiaaren ezagutza.
 - o Entzunaldiak eta musika bidezko adierazpena.
- Musika tresnak:
 - o Musika tresnen bidezko adierazpena.
 - o Instrumentuen sailkapena.
 - o Tresnak sortu.

Guzti hau lortzeko erabiliko den metodologia ludikoa, dinamikoa, sormena eta irudimena bultzatzen duena, talde dinamikak landuz eta integratzailea izango da.

Musikaz disfrutatatu eta zaletasuna sortuz!!!!